



ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA
NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

OSN/NOS

ESTATUTUA

2019ko apirila

ESTATUTUA

ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA

NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

AURKIBIDEA

ATARIKOA	- 4 -
I. KAPITULUA - Xedapen orokorrak	- 5 -
1. artikulua. Xedea, egoitza, izaera eta mendekotasun organikoa.....	- 5 -
2. artikulua. Jarduketaren printzipio orokorrak.....	¡Error! Marcador no definido.
II. KAPITULUA –OSN/NOSen eginkizunak eta helburuak	- 5 -
3. artikulua. Eginkizunak	- 5 -
4. artikulua. Helburu estrategikoak.....	- 6 -
III. KAPITULUA - OSN/NOSeko Gobernu, Zuzendaritza eta Kontsulta Organoak	- 7 -
5. artikulua. Gobernu eta Zuzendaritza Organoak	- 7 -
6. artikulua. Zuzendaritza Titularra eta Zuzendaritza Artistikoa.....	- 7 -
7. artikulua. Kudeaketa-Gerentzia	- 8 -
IV. KAPITULUA - OSN/NOSen jarduera	- 9 -
8. artikulua. Programazioaren urteko plangintza.....	- 9 -
9. artikulua. Baluarte Fundazioaren lan-arauketa	- 9 -
10. artikulua. Hainbat urtetarako plangintza estrategikoa	- 9 -
11. artikulua. Plan Zuzentzailea	- 9 -
12. artikulua. Plan Zuzentzailearen prestaketa, onespena eta indarraldia	- 10 -
V. KAPITULUA – Ohorezko karguak eta goraipamenak	- 10 -
13. artikulua. Ohorezko karguak	- 10 -
14. artikulua. Izendapena.....	- 11 -

ATARIKOA

Orquesta Sinfónica de Navarra – Nafarroako Orkestra Sinfonikoa (aurrerantzean, OSN/NOS) Espainiako Estatuan eraturako lehen orkestra egonkor eta profesionala izan zen. XIX. mendearen bukaeran osatu zen, nafar gizartearen gogo musikala asetzeko. Pablo Sarasate biolin-jotzaile eta konpositoreak 1879an sortua, gaur egun oraindik ere orkestra profesionala da, nafar guztien ondarea.

Hainbat gauza dira nabarmentzekoak orkestraren jarduketa artistikoan, hala nola denboraldiko kontzertu zikloa Iruñean eta Tuteran, opera-denboraldietan egiten dituen lankidetzak, emanaldi lirikoak, ekitaldi instituzionalak, grabazioak, birak, bai eta kontzertu pedagogikoak, kontzertu parte-hartzaileak eta prestakuntza-kontzertuak ere, besteak beste.

2016an, Nafarroako Gobernuaren enkarguz, Baluarte Fundazioak OSN/NOS hartu zuen bere gain. Horrela, urte bereko irailaren 1etik aurrera, OSN/NOS Baluarte Fundazioaren egituran txertaturik gelditu zen, eta harrezkerotik, orkestraren programazioa Fundazioaren berezko programazioa izan da.

OSN/NOSek bere Hitzarmen Kolektiboa dauka lan arloa arautzeko.

Bere mendekotasun funtzionalaren eraginez, OSN/NOSek bere Estatutua izan behar du, bere izaera eta jarduera deskribatzeko eta arautzeko. Agiriak, gainera, bateragarria izan behar du hala Baluarte Fundazioaren beraren estatutuekin nola Estatuko nahiz Foru Komunitateko lege-araudiarekin, agiri hori aplikatuko baitzaio eginkizunak betetzeko.

Estatutu hau prestatze aldera, OSN/NOSeko langile musikarien iritzia hartu da kontuan, dela haien lan eta arte arloko ordezkarien bidez, dela zuzendari titular eta artistikoaren bidez, dela Nafarroako musika munduko profesional ospetsuen bidez.

I. KAPITULUA - Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea, egoitza, izaera eta mendekotasun organikoa

1. *Orquesta Sinfónica de Navarra - Nafarroako Orkestra Sinfonikoa OSN/NOSen* Estatutu honen xedea da orkestraren jardueraren funtsezko helburuak ezartzea, funtzionamenduaren esparru orokorra nahiz zuzendaritza eta kontsulta organoak zehaztea, eta erakundearen gobernantzaren oinarriak ezartzea.
2. OSN/NOS ekoizpen musikalerako unitate bat da, izaera instrumentala eta sinfonikoa duena. Baluarte Fundazioan sarturik dago, hau da, Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko batean, eta fundazio hori, hain zuzen, haren entitate juridikoa da.
3. OSN/NOS Nafarroako Foru Komunitatearen orkestra ofiziala da.
4. OSN/NOSen egoitza Nafarroako Biltzar Jauregia eta Auditorioan kokaturik dago: Baluarte Plaza, 31002, Iruña. Bere jarduera garatze aldera, OSN/NOSek beste espazio batzuk ere erabiltzen ahalko ditu. Era berean, Foru Komunitatearen orkestra titularra denez, foru lurraldeko agertoki guztietan erregulariki jotzen saiatuko da.

2. artikulua. Jarduketaren printzipio orokorrak

1. OSN/NOSen jarduera Zuzendaritza-Gerentziak urtero proposatzen duen programazioarekin bat garatuko da, betiere Baluarte Fundazioaren Patronatuak onetsia.
2. OSN/NOSen jarduera orkestraren berezko izaeratik heldu da. Haren jarduera, beraz, musikala izanen da funtsean, hala sinfonikoa nola lirikoa, eta osagai hauek izanen ditu: kontzertu sinfonikoak ematea, Nafarroako Foru Komunitatean, batez ere; bira nazionalak eta nazioartekoak egitea; hezkuntza, prestakuntza eta gizarte arloko programak osatzea; ikus-entzunezko grabazioak egitea, bai eta bere berezko izaeratik heldu den beste edozein jarduera ere, betiere Baluarte Fundazioaren estatutuetan bildutako xedeekin bateragarria bada.
3. OSN/NOSek hainbat printzipio izanen ditu gidari bere jarduera arautzeko, bai eta orkestra publikoa den aldetik duen eginkizuna arautzeko ere. Hona hemen: berdintasuna, ekitatea, gardentasuna, gobernu ona eta aniztasuna. Halaber, nafar gizarte-estratu guztietara eta Nafarroako toki guztietara saiatuko da bere lana eramaten, Foru Komunitateko kultur eta hizkuntza dibertsitatea sustatuta.

II. KAPITULUA OSN/NOSen eginkizunak eta helburuak

3. artikulua. Eginkizunak

Hona hemen OSN/NOSen oinarrizko eginkizunak:

- a. Musika sinfonikoa hedatzen eta sustatzen laguntzea, Nafarroako konpositoreen musikan arreta berezia pausatuta, kontzertu, bira eta grabazioen bidez, komunikazio eta zabalkunde arloko estrategia egokiaren bitartez.
- b. Nafarroako musika-ondare historikoa eta garaikidea berreskuratu eta hedatu dadin sustatzea, Nafarroako egungo konpositore, interprete eta zuzendarien sorkuntza-lanean arreta berezia pausatuta.
- c. Musika sinfonikoa Nafarroako gizarte-estratu eta belaunaldi guztien eskura jartzea; batez ere, haur, gazte, adineko eta gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dauden pertsona guztien eskura.
- d. Musika arloko hezkuntza eta prestakuntza programak garatzea, jendearen parte-hartzea eta gizarte-iragazkortasuna areagotzeko, eta Nafarroako haur eta gazteen sorkuntza-ikaskuntzan zuzenean eragitea.
- e. Foru Komunitateko orkestraren eginkizuna betetzea, orkestraren parte-hartzea ekitaldi ofizialen zerbitzuan jarrita, horrelako partaidetza beharrezkoa denean: hau da, Nafarroaren Egunean, Vianako Printzea Sarian, lehiaketa ofizialetan, etab., inola ere bazter utzi gabe aipatu ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeen eskumenak.
- f. Tokiko talentu musikala sustatzea, interprete, zuzendari eta konpositoreekiko elkarlan aktiboa bultzatuta, bai eta beste diziplina batzuetan diharduten nafar artistekiko elkarlana ere, haien proiektio nazionalaren eta nazioartekoaren alde eginda.
- g. Elkarlana sustatzea musika-entitate publiko eta pribatuekin; bereziki, Foru Komunitateko abesbatza- eta orfeoi-mugimenduarekin.
- h. Kultur eta sorkuntza arloko industria espezialitate guztiak garatzen laguntzea; bereziki, Foru Komunitatean kokaturik daudenak.
- i. Elkarlan-bideak bilatzea hezkuntza-komunitatearekin; bereziki, kontserbatorioekin eta prestakuntza-zentro musikalekin, aipatu zentroetako ikasleak publiko gisa osatu daitezzen sustatuta.
- j. Bere jarduera guztien bidez, kultura edonoren eskura jartzeko helburuak bete daitezela bermatzea, Nafarroako eskubide kulturei buruzko 1/2019 Foru Legearekin bat (NAO, urtarrilaren 25a)

4. artikulua. Helburu estrategikoak

OSN/NOSek bere Plan Zuzentzailearekin bat garatuko ditu bere helburu estrategiko guztiak epe erdi eta luzera (ikus 11. artikulua), bai eta ematen zaizkion jarraibide artistikoekin bat ere.

III. KAPITULUA III - OSN/NOSen Gobernu, Zuzendaritza eta Kontsulta Organoak

5. artikulua. Gobernu eta Zuzendaritza Organoak

1. Hona hemen OSN/NOSen gobernu- eta zuzendaritza-organoak: Baluarte Fundazioaren Patronatua, Baluarte Fundazioaren Zuzendaritza-Gerentzia, OSN/NOSen Zuzendari Titularra eta OSN/NOSen Zuzendaritza Artistikoa.
2. OSN/NOSen gobernu-organo gorenaren Patronatua da. Patronatuak bere estatutuekin bat dihardu. Hona hemen Patronatuaren oinarrizko eskumenak: Baluarte Fundazioaren baitako programazioak eta urteko aurrekontuak onestea; gastuak kontrolatzea, programazioan aurreikusitako kontratazio artistikoak onestea, eta era berean, lege kontuen kontsulta eta ebazpena egitea.
3. Zuzendaritza-Gerentzia kargua betetzen duen pertsona OSN/NOSeko eta Baluarte Fundazioko zuzendaritza eragilearen arduradun nagusia izanen da. Patronatuak ardura hori beteko duen pertsona izendatuko du. Merezimendu, gaitasun, egokitasun, publizitate eta konkurrentzia irizpideekin bat aukeratuko da pertsona hori.
4. OSN/NOSeko langile musikariek kontsulta, aholkularitza eta proposamen arloko eginkizunak izanen dituzte arlo artistikoan. Fundazioaren Hitzarmen Kolektiboak arautuko du nola parte hartuko duten aipatu eginkizunetan.

6. artikulua. Zuzendaritza Titularra eta Zuzendaritza Artistikoa

1. OSN/NOSen Zuzendaritza Titularrak OSN/NOSeko instrumentisten antolaketa artistikoaren ardura dauka, haien kalitatea zaintzen du, onarpen-auzitegi-tako burua da, jarduera artistikoaren egitura koordinatzen du Zuzendaritza-Gerentziarekin batera, programazioan parte hartzen du Zuzendaritza Artistikoarekin batera, eta Patronatuak eta Zuzendaritza-Gerentziak gomendatzen dizkieten ardura tekniko eta artistiko guztiak betetzen ditu.
2. OSN/NOSen Zuzendaritza Titularra bere mendearen pertsona da taldearen arduradun gorenaren, ikuspegi artistikotik eta musikaletik.
3. Hona hemen Zuzendari Titularraren eginkizunak:
 - a) OSN/NOSen kalitate artistikoa bermatzea, zuzendaritza musikaren arduradun gisa darabilen jardueraren bitartez.
 - b) Kontzertuen eta entseguen egutegia gainbegiratu eta onestea, bai eta OSN/NOSen jarduera orokorraren egutegia ere.
 - c) OSN/NOSen musika-programazioaren edukia proposatzea Baluarte Fundazioaren Patronatuari eta Zuzendaritza-Gerentziari, onets dezaten.
 - d) Bere eskumenen baitan, Estatutu honetan nahiz Estatutua garatzeko arauetan ematen zaion beste edozein eginkizun egitea, bai eta Baluarte Fundazioaren Patronatuak ematen dizkionak ere.
4. Patronatuari Zuzendari Titularra izendatzea dagokio, betiere Zuzendaritza-Gerentziak proposaturik. Pertsona aukeratze aldera, kontuan hartu beharko dira OSN/NOSeko langile musikariei kontsulta egiteko mekanismoak, Fundazioaren Hitzarmen Kolektiboan bildutakoarekin bat.

5. Bere eginkizunak betetze aldera, Zuzendaritza Titularrak OSN/NOSeko Batzorde Artistikoa izanen du eskura kontsulta-organo gisa, Hitzarmen Kolektiboan araututakoaren arabera. Nafarroako musika munduko profesional ospetsu bat ere arituko da Batzordearekin batera, Batzordeak bere kontsulta-eginkizunak hobeki bete ditzan.
6. Zuzendaritza Artistikoak OSN/NOSen bidez gauzatuko du Plan Zuzentzailean bildutako estrategia, bai kudeaketa arlokoa bai artistikoa. Patronatuak Zuzendaritza Titularraren mendean ez dagoen Zuzendaritza Artistiko bat izendatzen ahalko du, edo Zuzendaritza Titularrari edota Zuzendaritza-Gerentziari atxiki, edota bestela, bien arteko zuzendaritza kolegiatu bat ezar dezake, irizpide artistiko eta teknikoei erreparatuta, eta aukera, efikazia eta eraginkortasuna kontuan hartuta.

7. artikulua. Zuzendaritza-Gerentzia

1. Zuzendaritza-Gerentzia OSN/NOSen administrazio eta ekonomia arloko zuzendaritzaren arduradun nagusia da. Orkestrak bere jarduera-epealdietan egiten dituen jarduera eta proiektu guztien plangintza, antolaketa eta kudeaketa zuzenduko du.
2. OSN/NOSen Zuzendaritza-Gerentziari Baluarte Fundazioaren Zuzendaritza-Gerentzia dagokio. Proiektu artistikoak ongi garatze aldera, Patronatuak bi entitateen zuzendaritza bereizten ahalko du, egokitzat jotzen bada.
3. Zuzendaritza-Gerentziaren eginkizunak Baluarte Fundazioaren estatutuetan bildutakoak dira, eta zehatzago, OSN/NOSi dagokionez, honako hauek:
 - a) OSN/NOSen administrazio eta kudeaketa lanak zuzendu eta ikuskatzea, Baluarte Fundazioaren Patronatuak gainbegiratuta.
 - b) OSN/NOSen ordezkaria izatea administrazioarako.
 - c) OSN/NOSeko Plan Zuzentzailea prestatzea.
 - d) Baluarte Fundazioaren Patronatuak aztertu, ezagutu, bideratu eta onetsi beharreko gai eta agiri guztiak prestatu, bildu eta antolatzea.
 - e) Berriazko esleipena duten ordainketa guztiak agintzea; gastu eta diru-sarrera eragiketa guztiak kontrolatzea, OSN/NOSeko kontabilitatea egunean eramatea, bai eta ordainketarako banku-agirien sinadura ere.
 - f) Langileen burutzari dagozkion eginkizunak betetzea, eta era berean, Hitzarmen Kolektiboa negoziatu, aplikatu eta betetzeaz arduratzea.
 - g) Denboraldi bakoitzaren bukaeran, OSN/NOSen jardueraren gaineko txostena prestatzea, urtealdi bakoitzean zer emaitza artistiko eta finantzario izan diren zehaztuta, eta zenbat entzule izan diren azalduta.
 - h) Urtero, OSN/NOSen programazioa, aurrekontu-plangintza eta balantze ekonomikoak Baluarte Fundazioaren Patronatuari helaraztea.
 - i) OSN/NOSen jarduera sustatzea, bai tokikoa, bai nazionala, bai nazioartekoa; halaber, jardueraren ordezkari gorenaren izan da beti.
 - j) Urteko plangintza ekonomikoaz, finantzaketa-planaz eta kanpo-babesleez arduratzea, hala publikoek nola pribatuek.
 - k) OSN/NOS gizarte, kultur eta hezkuntza erakundeen aurrean ordezkartzea, lankidetzak ezartzeko asmoz; kontserbatorioekin eta prestakuntza musikalerako zentroekin, bereziki.
 - l) Denboraldiaren aurkezpen publikoa.

- m) Estatutu hau bete dadin zaintzea, bai eta OSN/NOSi esleitutako aurrekontuen gauzapen egokia ere.

IV. KAPITULUA - OSN/NOSen jarduera

8. Artikulua. Programazioaren urteko plangintza

1. OSN/NOSen Zuzendaritza-Gerentziak behar den denboraz taxutu beharko du urteko jarduketa-plana, urtealdi bakoitza hasi baino lehen.
2. Planean honakoak barnebilduko dira: urteko helburu artistikoak, jarduketaren programa eta egutegia, gastu eta diru-sarreraren aurrekontua eta kontratazioak. Era berean, OSN/NOSeko Plan Zuzentzailean azaldutako proiektu artistikoaren gauzapen egokia ziurtatuko du.
3. OSN/NOSen Zuzendaritza-Gerentziak urtealdi bakoitzeko jarduera-txostena egin beharko du. Aipatu agirian ebaluatuko da noraino bete diren urteko jarduketa-planean bildutako helburuak.
4. Baluarte Fundazioaren Patronatuak urteko jarduketa-plana eta jarduera-txostena ebaluatu eta onetsi beharko ditu.

9. artikulua. Baluarte Fundazioaren lan-arauketa

1. OSN/NOSen lan-arauketa Baluarte Fundazioaren Hitzarmen Kolektiboan zehaztua dago. Hitzarmen hori Fundazioak berak negoziatu eta onetsi du langileekin beren ordezkarien bidez, lan-legeriaren baitan.
2. Ahalik eta efikaziarik eta gardentasunik handiena izate aldera, Hitzarmen Kolektiboak lantaldearen eta Patronatuaren arteko komunikazio-sistema arautuko du, urteko txostenak igorri eta Patronatuaren kideen aurrean aurkeztuz.

10. artikulua. Hainbat urtetarako plangintza estrategikoa

1. OSN/NOSerako proiektu integrala *Plan Zuzentzailean* eta urteko programazio/jarduketa planean oinarrituko da, helburu artistikoak zentzu zabalean finkatzeko, bai eta huraxe aplikatzeko aurreikusita dagoen egutegia ere.
2. Plan Zuzentzailea hiru urtekoa izanen da eta Baluarte Fundazioaren kudeaketa-planarekin eta/edo kudeaketa-proiektuarekin lotuko da.

11. artikulua. Plan Zuzentzailea

1. Plan Zuzentzailea proiektu artistiko batez osatua egonen da, bai eta dagokion finantza nahiz aurrekontu arloko esparru zehatz batez ere. Orkestrak Planaren indarraldian izanen dituen programazio eta jarduketa ildo guztiak barnebilduko ditu OSN/NOSen proiektu artistikoak zentzu zabalean, barne direla birak, kontzertu

pedagogikoak, jarduera sozialak eta parte-hartzaileak, etab. Edukiak bat etorriko beharko du xedeak betetzearekin, bai eta azaldutako helburu estrategikoak eta operatiboak lortzearekin ere.

2. Plan Zuzentzailean proposatutako proiektu artistikoak bere helburu estrategikoak betetzeko kronograma bat barnebilduko du, bere bideragarritasun artistikoa eta ekonomikoa baloratze aldera.
3. Finantza eta aurrekontu esparruan zehaztuko dira proiektu artistikoa lortzeko behar diren baliabide ekonomikoak. Proiektu artistikoa beti egokitu beharko da unean-unean aurrekontuan dagoen dirura.
4. Plan Zuzentzaileak, halaber, OSN/NOSEk berak ontzen dituen ekoizpenen mugak ezarriko ditu.
5. Plan Zuzentzaileak ebaluazio-sistema etengabea barnebilduko du eta, horren baitan, adierazle kuantitatiboz nahiz kualitatiboz osaturiko metodoak, OSN/NOSEn emaitza artistikoa eta kudeaketa ebaluatze aldera.

12. artikulua. Plan Zuzentzailearen prestaketa, onespina eta indarraldia

1. Plan Zuzentzailea prestatzea OSN/NOSEn Zuzendaritza-Gerentziari egokituko zaio, eta OSN/NOSEn Zuzendaritza Titularrak eta Artistikoak nahiz Baluarte Fundazioaren Zuzendaritzak egindako proposamen artistikoan oinarriturik gauzatuko da.
2. Plan Zuzentzailean bildutako arte eta kudeaketa arloko proiektuari buruzko eztabaida eta iradokizunak Baluarte Fundazioaren Patronatuaren eskumenaren baitan egonen dira.
3. Plan Zuzentzailea onestea Baluarte Fundazioaren Patronatuaren eskumenaren baitan egonen da.
4. Plan Zuzentzailea OSN/NOSEko musikari taldeari azalduko zaio, Baluarte Fundazioaren Hitzarmen Kolektiboan bildutako partaidetza-printzipioei jarraiki.
5. Plan Zuzentzaileak 3 urteko indarraldia izanen du. Indarraldiko azken 6 hilean, ezarpenaren emaitzak ebaluatu eta gero, hiru urteko plan berriaren plangintza eta prestaketa egiteari helduko zaio.

V. KAPITULUA – Ohorezko karguak eta goraiamenak

13. artikulua. Ohorezko karguak

1. Bizirik dagoen zuzendari, konpositore edo interprete bat *“ohorezko artista”* izendatzea proposatzen ahalko dio OSN/NOSEk Baluarte Fundazioaren Patronatuari. Nornahi den ere, halako ibilbide artistiko bat izan beharko du eta halako lotura musikal bat ere OSN/NOSEkin nahiz Baluarte Fundazioarekin, betiere haren ekarpena nafar kulturarako adierazgarria eta garrantzi handikoa jotzen bada. Honako izendapen hauek izanen dira baliozkoak: Ohorezko Konpositorea, Konpositore Emeritua, Ohorezko Artista, Artista Emeritua, Ohorezko Zuzendaria, Zuzendari Emeritua.

2. Zuzendaritzari dagozkion kategoriei dagokienean, proposamenaren berri eman beharko zaio musikari taldeari Patronatura igorri baino lehen; musikari taldeari, gainera, balorazio ez-loteslea egiteko eskatuko zaio.

14. artikulua. Izendapena

1. Baluarte Fundazioaren Patronatuak goraipamenaren titularitatea emanen dio *ohorezko artistari*, eta izendapenak noiz arte iraunen duen erabakiko du (beharrezkotzat jotzen bada). Halaber, ondotik, OSN/NOS taldearekin izanen duen loturaren ezaugarriak zehaztuko ditu.
2. Goraipamen horiek emanen badira, hautagaien eredugarritasuna izanen da nahitaezkoa, bai eta haien ibilbidea, merezimenduak, Foru Komunitateari egindako zerbitzua eta eskuarki aitortu zaion ekarpen artistikoa ere.
3. Patronatuak goraipamena kentzeko ahalmena izanen du, baldin eta izendatuak eredugarritasunik gabe jokatzen badu, kondena irmoa jasotzen badu, gizartean arbuiagarriak diren jarrerak agertzen baditu, eta era berean, haren jarrera eta egintzek izendapenerako erabilitako printzipioak nahiz Estatutu honetako printzipio gidariak urratzen badituzte.